

## **EHU IRRATI MARATOIA 2022: MEMORIA**

### **1. Proposamenaren oinarria**

Seigarren urtez, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko ekimen bat proposatu genuen Euskara Zuzendaritzaren deialdira: EHU Irrati Maratoiaren seigarren edizioa antolatzea. Aurreko urteetako esperientziatik abiatuta, ekimena Kazetaritza Graduko bigarren mailako Informazioa Irratian irakasgaiaren barruan kokatzen dugu eta aurten, iazko bezala, laugarren mailako ikasleak ere gehitu dira, Komunikazioa Euskaraz: Hedabideetarako Hizkuntza Estrategiak irakasgaikoak. Helburuen artean ikasleen artean euskararen erabilera sustatzea, euskal kazetaritza landu eta Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko azpiegiturak ikusgai egitea daude. Aurten bost orduko baino gehiagoko irrati programa bat egin da, zuzenean emititu dena Youtubeko kanaletik eta Mikel Laboa Plazan jarritako bozgorailuetan.

### **2. Ekimena**

Proposatzen zen irrati maratoia bost ordu t'erdikoa izan da aurten, aurreko edizioetan baino bi ordu gehiagokoa. Abenduak 2an goizeko 10.30etan hasi eta arratsaldeko 16.00rak arte. Tarte horretan hainbat gai planteatu izan dira (I.Eranskina). Gai bakoitzarekin albisteak (gaia kokatzeko datuak, adibidez), erreportajeak, elkarrizketak eta mahai inguruak planteatzeko asmoa genuen, horretarako, arlo desberdinetako protagonistak gonbidatuz, guztira 20 gonbidatu inguru izanik. Horrez gain, hiru mahai inguru egin dira KAPUKO 4. Mailako *Komunikazioa Euskaraz: Estrategia linguistikoak komunikabietan* irakasgaiaren dinamikaren barruan. Hiruretan ikasleek eurek eraman dute aurrera komunikazio-kanpaina osoa: gaia eta parte-hartzailea erabakitzetik mahai-inguruko edukien zabalkundea egiteraino. Egitasmoaren azken helburua bat-bateko ahozko jardun baterako estrategia linguistiko-diskurtsiboak lantzea da,

baina egitasmoak txertatzen ditu aurretiko ekoizpen lanarekin zerikusia duten urrats guztiak lantzea, maratoiaren egunean bertako parte-hartzaileekiko hartu-eman bideratzea eta mahai-inguruaren dinamika bera kudeatzea. Egun horretan bertan Twitterren bidez zabaldu dituzte mahainguruetakoko edukiak eta ondorengo asteetan podcasten bidezko zabalkuntzea egingo dute.

### **3. Ekimenaren helburuak**

Ekimen honekin hainbat helburu lortzea espero genuen:

- Euskararen erabilera sustatu Fakultatean, ikasleen artean eta sarean
- Kurtso ezberdinetako ikasleen arteko elkarlana bultzatu
- Berdintasunaren inguruko hausnarketa bultzatu ikasleen artean eta horretan oinarritutako kazetaritza lanak landu eta zabaltzea
- Fakultateko azpiegiturak (Audiolab Irrati Estudioak) ikusgarri egin
- Euskal kazetaritza landu
- Azaldutako gaien inguruko gogoeta eta eztabaida bultzatu gure Unibertsitatean

### **4. Taldea**

Aipatutako 70 ikasleez gain, ondoko irakasleek osatutako taldea planteatzen genuen, guztiak Kazetaritza II eta Ikus-Entzun eta Publizitate eta Harreman Publikoak Sailekoak:

- Leire Iturregui: koordinatzailea. Berrien idazkera irratian eta Lokuzioa irakasten ditu Kazetaritzako Graduan euskaraz.
- Maialen Goirizelaia: ikertzailea.
- Aingeru Genaut: teknologian aditua.
- María José Cantalapiedra: proiektu berritzaileetan esperientziaduna.
- Rosa Martín Sabarís: dokumentaletan aditua
- Tania Arriaga: diseinuan aditua
- Terese Mendiguren: Lokuzioa irakasten du Kazetaritzako Graduan eta EiTB-UPV/EHU Multimedia Masterrean
- Antxoka Agirre: Kazetaritzako irakaslea

- Arantza Gutierrez: irratian aditua. Ekoizpena eta erre realizazioa irratian irakasgaia ematen du.
- Irati Agirreazkuenaga: Lokuzioa irakasten du Kazetaritzako Graduan euskaraz
- Agurtzane Elordui, Komunikazioa Euskaraz: Hedabideetarako Hizkuntza Estrategiak ikasgaiko irakaslea.

## 5. Aurrekontua:

- Erreprografia: ekimenaren kartelak inprimatzeko (zuzenean bidali dira fakturak zerbitzutik errektoreordetzara)
- Material suntsikorra: 251.44 euro: paper dendan gonbidatu eta parte hartzaileentzako zerbait erosteko (libretak, boliak)
- Tortillak eta kafeak: 200 euro: gonbidatu eta parte hartzaileentzako
- Bozgorailuen alokairua: 210 euro

Kazetaritza Sailak eta Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateak ere babestu dute ekimena, eta kafetegiko kostuak eurek ordaindu dituzte, baita material suntsikorraren parte bat ere. Horrez gain, Ikus Entzunezko Komunikazioa eta Publizitateko Sailak boltsak eman dizkigute gonbidatuei oparitzeko.

## 6. Komunikazioa eta difusioa

EHU Irrati Maratoiari buruzko informazioa zabaltzeko hainbat bide erabili dira:

- a) **Web orrialdea:** EHUko web orrialde ofiziala eskatu eta sortu dugu. Bertan dago ekimenari buruzko informazio guztia: partaideen izenak, landutako gaiak, etab:  
<http://www.ehu.eus/irratimaratoia>

- b) **Sare sozialak:** gazteek gehien erabiltzen dituzten sare sozialetan perfilak sortu dira eta ekimenari buruzko informazioa zabaldu da



Twitter: @EHUirratimarato



Facebook: EHU irrrati maratoia



Instagram: EHUirratimaratoia

- c) **Youtubeko kanala:** zuzenean emititu da bertatik eta orain eskuragarri dago saio osoa.

Horrez gain, taldeko Arantza Gutierrez irakasle eta ikertzaileak zutabe bat argitaratu zuen ekimenaren aurreko igandean Berria egunkarian (atxikita).